

TxiKittu

2015eko urria

154 zbk.

Perretxikoen sasoia



txis teak



Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar
Tel: 943 206776.

Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Mainer Aranberri,
Ana Aizpurua eta Eibarko
ikastetxeetako ordezkariak.

Administrazioa

Marisol Uriarte.

Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Mainer Aranberri, Ainhoa
Luz eta Ana Aizpurua.

Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

Copyright-a

Txikitto!

Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak
diruz lagundutako argitalpena



Aita-semeak kalean doaz. Aitak
esaten du:
– Zergatik daukazu ile berdea?
– Ez dakit –erantzuten du semeak, eskuaz
mukiak burura igurtziz.
Uxue



– Jaimito, ezin da igerilekuan txixik egin!
– Denek egiten dute-eta! –erantzuten du Jaimitok.
– Bai, baliteke, baina ez behintzat tranpolinetik!
Saioa



Aitxitxa
eta umea kaletik doaz eta umeak
lurretik zerbait hartzen du. Aitxitxak esaten dio:
– Lurretik ez da ezer jasotzen!
Gero, aitxixa lurrera jausten da eta esaten dio bilobari:
– Lagundu ba jaikitzen!
Eta umeak erantzuten dio:
– Ezin dut! Lurretik ez da ezer jaso behar!
Markel



Ume bati eskolan buruhandi deitzen diote.

Amarengana joaten da eta esaten dio:

– Ama, eskolan buruhandi deitzen didate.

– Eta ez diezu erantzun hori ez dela esan behar? –dio amak.

– Ez, kale estuetatik sartzen dira eta ezin diet jarraitu.

Danel



Jaimitoren amak esaten dio:

– Etor zaitez, aita eta bion ezkontzaren argazkiak erakutsiko dizkizut. Begira, hau da zure aita!

– Hori??? –erantzun dio Jaimitok–. Nor da orduan gurekin bizi den lodikote eta burusoil hori???



JAJAJA
JAJAJA



Neska batek amari:

– Ama, badakizu? Nire idazlanak irakaslea zeharo hunkitu du!

– Benetan diozu?

– Bai horixe! Negargarria dela eta pena ematen duela esan dit!

Bazegoen mutil bat hain altua zela, jogurt bat jan zuenean sabeleraino iritsi orduko kadukatua zuela.

Emakume bat harategira doa eta eskatzen du:


– Txerri buru hori, mesedez.

Eta harakinak:

– Barkatu, andrea, baina hori ispilu bat da!

Denborapasak

Elkartu puntuak eta margotu



Eider Lasa



Margotu ezazu tximeleta zuk nahi duzun koloretan, eta tximeleta eder baten antzera geldituko da.

Egilea: Izain Orueabal

Lehiaketa



AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea **Lucia Zubizarreta** izan da. Argazkian duzue saria jasotzen. Liburua eta Eibarko Udalak emandako Coliseorako sarrerak eraman ditu Luciak etxera. Zorionak!



Hizki-salda

Animaliak

R	A	A	V	A	K	A	J	P	G
F	I	K	P	M	E	E	A	F	K
X	G	E	A	R	T	D	L	A	A
T	R	R	I	A	V	R	I	R	Z
X	A	R	D	I	S	U	D	R	T
A	T	R	L	M	T	Z	N	O	N
H	R	A	A	R	X	I	A	H	U
A	U	T	Z	A	I	Y	G	E	H
L	P	M	S	F	T	O	U	B	A
A	I	A	K	K	A	K	S	E	J

ahuntza
akerra
armiarma
behorra
ipurtargia
izurdea
sugandila
txahala
txita
zaldia

BIDALI ERANTZUNAK URRIAK 26 BAINO LEHEN.
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.

Izen-abizena

AdinaTel.....

Denborapasak

FUTBOLA ETA OSASUNA

1 Bazen behin futbol ekipo bat oso ona. Baina jokalaria bat oso mehea zen, Iker deitzen zen.



2 Baina egun batean Ikerrek konortea galdu zuen baloia zuela. Denak berari laguntzera joan ziren.



3 Medikura eraman behar izan zuten Iker gaixoa.




4 Denak IKerreri txoiten zuden kanpoan.



5 Iker medikotik irten zen. Denak oso pozik zuden, eta Ikerrek asko jango zuela esan zuen.



MIKEL eta IRAIA ~ ITURBURU



Margotu zek nahi dezun koloretz

Egilea: Laura Ries

Perretxiko bila goaz!

Perretxiko bila jardutea Euskal Herrian oso zabaldua dagoen ohitura dugu. Batzuk irrikaz egoten dira, udazkena noiz helduko, mendira joan eta saski bete perretxiko etxera itzultzeko.

Perretxiko bila joatea dibertigarria izan daiteke, oso, eta mendiak altxorak ematen dizkigu. Baina adi! Perretxiko goxo guzti horien artean, kaltegarriak ere badaude-eta.

Perretxikoak biltzera goazenean arropa egokia eramateaz gain, makila, labana, zumezko otxarra, eta perretxikoaren ezaugarriak ondo behatu ahal izateko lupatxoren bat eramatea ere ondo legoke.

Perretxikoez zertxobait jakin nahi badugu, oso garrantzitsua da euren ezaugarriei erreparatzea, ezaugarriok zeintzuk diren ondo jakinda, perretxiko pozoitsuak eta jangarriak bereiztea errazagoa izango delako.



Ezinbestekoa izango da, beraz, perretxikoen kolorea, neurria, txapelaren forma eta abarrekoak deskribatzeko baliabideak ezagutzea.

AHOLKUAK: Gai honen inguruan urratsak eman nahi baditugu, beharrezkoa egingo zaigu adituen eskutik etorriko zaizkigun aholkuak entzutea, eta gure herrian Eibarko Klub Deportiboko Mendi taldeko kideak prest izango ditugu jaso



Ez galdu aukera!!!

Urriaren 17an: Perretxikoak biltzera joanez gero, Deportiboan perretxikoen aukeraketa eta sailkapena egiten lagunduko dizute.

Urriaren 18an: Jaso eta aukeratutako espezieen erakusketa eta produktu mikologikoen salmenta eta dastaketa Toribio Etxeberrian.

ditugun perretxikoak jangarriak diren edo ez esateko.

Erabateko ziurtasuna izan behar dugu hartzen dugun perretxiko hori ona dela, duda txikiren bat badugu ez dugu hartu behar.

Horretaz gain, liburuak ere badaude, baina horrelakoren bat erabili nahi izanez gero, komenigarria da heldu baten laguntza izatea. Izan ere, batzuetan hitz arraroz eta teknikoz beteta daude liburuak.



IZENA

Asier

ABIZENA

Lopez de Viñaspre

JAIOTERRIA

Eibar

JAIOTEGUNA

1971-05-23



- **Umetan irakurri zenuen libururik politena?** Gizon harrigarriak

- **Liburu elektronikoa ala paperezkoa?** Paperezkoa

- **Kolore bat?** Urdina

- **Uda ala negua?** Uda

- **Gozoa ala gazia?** Gozoa

- **Ipuinik politena?** "Ez da ahotsik behar", Armando Quintero

- **Ipuinetako pertsonaia bat?** Pippi kaltzaluze

- **Zergatik da otsoa beti maltzurra?** Duela urte mordoxka bat, herritarrek otsoari izugarritzko beldurra eta gorrotoa zioten, beren aziendak mehatxatuak sentitzen zituztelako. Horregatik bereganatu zuen otsoak ipuinetako maltzuraren papera. Gaur egun,

zorionez, baditugu otso sentimentalak ere

- **Istorioak entzun ala kontatu?** Entzun

- **Zergatik da ona irakurtzea?** Ulermenerako, hizkuntzarako, matematiketarako, irudimenerako, burmuinarentzako, ondo pasatzeko... Ehundaka onura ditu

- **Oporretarako leku bat?** Landak

- **Kirolrik egiten duzu?** Bai, korrika

- **Animaliarik baduzu?** Ez

- **Birziklatzen duzu?** Bai

- **Euskera osasuntsu dago?** Sukar pixka bat badu, bai

- **Nola bultzatu?** Edabe magikorik ez dago. Maitatuz eta hitz eginez. Osagai bikainak euskera ondo elikatzeke

- **Eibarko umeak irakurleak dira?** Noski baietz!

- **Eguneko unerik politena?** Seme-alabak besarkatzen ditudanean

- **Abesti bat?** Ikusi mendizaleak, baso eta zelaia, mendi tontor gainera igo behar dugu...

- **Kontatu txiste labur bat.** Elefante eta inurria igogailuan zeudela, galdetu zion inurriak elefanteari:

- *Zenbat urte dituzu?*

- *Hiru urte ditut. Eta zuk?*

- *Nik ere hiru ditut, baina gaixorik egon naiz.*

ASIER
LOPEZ DE VIÑASPRES

Asier Lopez de Viñaspre Eibarko Udaleko Haur eta Gazteria saileko koordinatzailea da. Liburutegian ere zuetako askok ikusiko duzue, bertan egoten da-eta egunero. Biolina jotzea, margotzea, irakurtzea, sukaldatzea eta jolastea gustatzen zaio. Zein liburu irakurri ez badakizue, jo berarengana eta aholku mordoa emango dizkizue.



Udan, Eibarko udaletxeak, baratza egin zigun **AMAÑA** ikastetxe aurreko terrenotxo batean. Ikasturte hasieran irakasle eta ikasleen artean baratza nola martxan jarri, zer eta nola landu adostu ondoren, iritsi da garaia lanean hasteko!! Haur eta lehen hezkuntzakoak elkarri lagunduz lan egitea erabaki genuen. 3 urtekoak 5. eta 6. mailakoekin landuko dute, 4 urtekoak 3. eta 4. mailakoekin eta 5 urtekoak 1. eta 2. mailakoekin. Lehendabizi lurra prestatu dugu eta lehen barazkiak sartu ditugu: letxugak, porruak eta arbiak. Ea San Andres azokarako uzta bikaina dugun!!

Ikasturtea hasi eta berehala txango ederra izan dute **ITURBURUKO** 6.mailakoek. Oraingoan 3 egunetako irteeraz gozatu dute, Arabako Zuhatza irlan, hain zuzen.




Han uretako jolasak eta kirolak egin dituzte. Bertara hurbildu baino lehen Gasteizko Legebiltzarreko atea eta aretoa ireki dizkiete, politikoez egiten duten lana hobeto ulertzeko. Telebistaz ezagutzen ditugun toki eta aulkietan egoteko aukera izan dute, interesgarria benetan.

Orain dela egun batzuk, **SAN ANDRES** ikastetxeko 5. eta 6. mailakoak Zuhatzako barnetegira joan ziren, eta primeran ibili ziren uretako ekintzak egiten.



URKIZU eskolak, oportunitate bueltan, irailaren 9an ireki zituen atea. Irailaren 18an Urkizu eskolatik Arratera joan ginen. Eguraldi ederra egin zigun eta primeran pasatu genuen.

ARRATEKO ANDRA MARI Ikastetxetik, kaixo lagunok! Ikasturtea hastez batera martxan gaude jada: gela berria, irakasle berria,... eta ekintza batzuk ere prest ditugu dagoeneko. Besteak beste, urriaren 5etik 9ra bitartean, LHko 1., 3. eta 5. mailakoak Baikorako tailerrak izango dituzte eskolan bertan, jolasen bidez erronkei aurre egiten ikasteko, elkar onartzen eta taldea dinamizatzen. Bestalde, urriaren 13an HHko 4 eta 5 urteko ikasleak Coliseora joango dira "Lotte 2" filma ikustera. Honetaz gain 6. mailakoak Portaleko liburutegira joango dira bertako funtzionamendua ezagutzera. Beno, lagunok, ikusten duzue, hilabete honetan ekintza batzuk ditugu antolatuta. Beste gauza pila bat prestatzen ari gara eta hurrengoan kontatuko dizuegu! Argazkian, 2 urtekoak egokitzen prozesuan.



bitartean, denbora izan zuten bertatik bertara ibiltzeko. Azkenik, 2.mailakoak, txipli-txapla dabilta bi astetako igeriketa ikastaroez gozaten.



Joan zen astean **ALDATZE IKASTETXEKO** txikiak Arratera joan ziren eguna pasatzera, kurtsoari hasiera emateko. Eguraldi ederrarekin, egun aparta pasatu zuten.

ETXeko artista

Itsasoa botila barruan



Oporrak amaitu direla-eta agian triste samar egongo zarete, itsasoa urruti dagoela sentitzen duzue, itsasoa ikusteko gogoa... Bada, zuen desioak beteko ditut. Zuen itsasoa egin ahal izango duzue botila baten barruan.

MATERIALA

- Plastikozko botila, hutsik (aho zabalekoa)
- Koloratzaile urdina
- Sukaldeko olioia
- Itsas barraskiloak, txirlak... (plastikozkoak izan daitezke)

- Inbutua (enbudoa)
- Harea
- Ura

PAUSOAK

- Bete botilaren bi heren urez. Gehitu koloratzaile urdina edo margo urdina eta nahastu ondo, kolore urdina hartu arte.
- Gehitu harea, barraskiloak, txirlak, koloretako arrainak. Olioia sartu. Ezingo denez urarekin nahastu, olatu dibertigarriak sortuko dira.
- Hor duzue eskulan polita!

Ti-ta!

Plastikozko poltsak gordetzekoa

Adi artaziekin!

Plastikozko zenbat poltsa pilatzen zaizkigu etxean, ezta? Horiek denak elkartu eta gordetzeko proposamena duzue ondorengoa. Birziklatzeko aproposa, gainera. 2 litroko plastikozko botilari zuloa egiozue aldeetako batean, eta bertatik sartuko ditugu poltsak. Muturrean ere zulotxo egin, eta bertatik aterako ditugu poltsak. Politagoa izan dadin, margotu eta apaindu, nahi duzuen moduan.



SUKALDARITZA txokoa



OTAR-TARTA

OSAGIAK

- ✓ Bizkotxo (txokolatezkoa, jogurtarena...)
- ✓ Txokolate-krema
- ✓ Kit-kat erako txokolateak
- ✓ Koloretako txokolatinak (lakasitoak, E&M)



PAUSOAK

- 1.- Bizkotxo geruzatan moztu eta geruzen artean txokolate-krema sartu.
- 2.- Behin geruza guztiak muntatu eta gero, igurtzi tarta osoa txokolate-kremarekin.
- 3.- Kit-kat txokolateak itsasi bizkotxoaren inguruan, otar itxura emanaz.
- 4.- Azkenik, bizkotxoaren goiko aldean jarri itzazue koloretako txokolatinak.



GAZTA-BURUAK



Ti-ta!

Zuek danok ezagutuko dituzue, ziur asko, zorro gorritz inguratuta datozen gaztatxo biribil horiek, ezta? Jaterako orduan dibertigarriagoak izan daitezten, hona hemen hainbat proposamen. Hori bai, zorro gorria mozteko aitzo zorrotza erabili behar denez, eskatu laguntza nagusi bati. Argazkikoak ideiak besterik ez dira, baina zuen irudimena erabiliz, gauza zoragarriak egingo dituzue!

URRIKO agenda

“SANANDRESAK EIBARREN”

kartel-lehiaketa.

Lanak aurkezteko azkeneko eguna: **urriak 13**.

Informazio gehiago Pegoran.

Urriak 24

ZAPATUKO

IPUINA: “Barrenak astintzen”, Vanessa Gonzalez.

Umeen liburutegian,

18:00etan. 3 urtetik aurrera. Iraupena: 50-60 minutu.

Familia! Lagunak,... zer gertatzen zait? Arraro sentitzen naiz eta ez dakit zer den! Tristura al da? Bakardadea? Alaitasuna edo poztasuna? Zer sentitzen dut gaur? Nire gorputzak sentipen ugari izaten ditu egunero eta alditan, ez dakit hauekin zer egin. Orduan, ipuin magikoen munduan murgiltzen naiz erantzunen bila...



Urriaren 16tik 25era

EIBARKO LIBURU ETA DISKA AZOKA.

Untzaga Plazan.



XVII. Jardunaldi mikologikoak

Urriak 17: Goizean, herriko ikastetxeetako haur eta gurasoak perretxikoak biltzera irtengo dira.

Aukeraketa eta sailkapena Klub

Deportiboan, Aranzadi Zientzia Elkartekoen laguntzarekin. **18:00etan: Perretxiko pintxo dastaketa** herriko hainbat tabernatan.

Urriak 18: Jaso eta aukeratutako espezieen erakusketa eta produktu mikologikoen salmenta eta dastaketa Toribio Etxebarria kalean, eta perretxikoen dastatze-bazkaria Klub Deportiboan.



ARIES (martxoak 21-apirilak 20)

IKASKETAK: Eguneko denbora antola ezazu: etxekolanak, jolasak... **AMODIOA:** Noizko bere izena? **OSASUNA:** Luzatu ondo gihar horiek, lesionatu egingo zara bestela.

TAURUS (apirilak 21-maiatzak 21)

IKASKETAK: Ziur aurten dena ongi doakizula! Jarraitu lanean. **AMODIOA:** Agian, zure zain dago. **OSASUNA:** Fruta eta barazki gehiago jan beharko zenituzke.

GEMINIS (maiatzak 22-ekainak 21)

IKASKETAK: Irakaslea irakasteko dago, galdetu hari. **AMODIOA:** Aupa, esaiozu zeozer! **OSASUNA:** Kirola oso osasuntsua dela ez ahaztu. Animatu zaitetz!

CANCER (ekainak 22-uztailak 22)

IKASKETAK: Kurtsoa oraintxe hasi eta nekatuta! **AMODIOA:** Ez al duzu oraindik ikaskide berri horrekin berba egin? Bada ordua. **OSASUNA:** Edan ezazu ura, ona da-eta.

LEO (uztailak 23-abuztuak 23)

IKASKETAK: Eta eskolako lanak, zer? **AMODIOA:** Ondo zaindu laguna, txo! **OSASUNA:** Batzuetan nagitasuna eman arren, dutxa hartzea ezinbestekoa da.

VIRGO (abuztuak 24-irailak 23)

IKASKETAK: Maila bat gorago zaude, animo! **AMODIOA:** Bat aukeratzea komeni zaizu. **OSASUNA:** Kirol pixka bat egiteak on egingo dizu.

LIBRA (irailak 24-urriak 23)

IKASKETAK: Non dituzu lehengo urteko margoak? **AMODIOA:** Musuak emateko eta jasotzeko dira. **OSASUNA:** Arropa egokia eraman, hoztuko zara bestela.

SCORPIUS (urriak 24-azaroak 22)

IKASKETAK: Lasai, ez da horrenbestera eta. **AMODIOA:** Ai zein polita den! **OSASUNA:** Kolonia erabiltzen hasi beharko duzu, ezta?

SAGITARIUS (azaroak 23-abenduak 2)

IKASKETAK: Pixkanaka-pixkanaka urrutirago iritsiko zara. **AMODIOA:** Oraingoan ziur baietz. **OSASUNA:** Oraingo honetan patxadaz hartzea komeni zaizu.

CAPRICORNIUS (abenduak 22-urtarrilak 20)


IKASKETAK: Ahalegintzen ari zara eta igerri egiten da. Oso ondo! **AMODIOA:** Bai, ez, bai, ez, bai, ez, bai. Aupa! **OSASUNA:** Hainbeste txokolate, hainbeste txokolate. Kontuz!

ACUARIUS (urtarrilak 21-otsailak 18)

IKASKETAK: Utzi opor kontuak eta hasi lanean. **AMODIOA:** Umm... uste duzuna baino gertuago duzu. **OSASUNA:** Ez al duzu nahikoa jan, bazkalorduan?

PISCIS (otsailak 19-martxoak 20)

IKASKETAK: Hori bai txukun lan egitea. **AMODIOA:** Lasai, zure sekretua gordeko dut... **OSASUNA:** Eztul hori zaindu gero, e? Ez zaitetz hoztu.



AMA GAIZTOAREN IPUINA (6-8 URTE)

“Bazen behin ama gaizto bat...” horrela hasten den ipuinik ez zenuen irakurriko. Izan ere ipuinetako amak, guztiak dira onak. Txanogorritxoren ama ez ote zen, baina, arduragabe samarra? Eta Ahatetxo itsusiarena koldar antzekoa? Eta Hansel eta Gretelena gaiztoa baino gaiztoagoa? Eta zuk, zer uste duzu? Ba al dago ama gaiztorik ipuinetan? Eta benetan? “Hala bazan, ez bazan...”, ipuin hau nola bukatu, zuk esan....




ARMAIRU BARRUAN IPUINAK IRAKURTZEN ZITUEN NESKA (8-10 URTE)

Anek armairu zahar bat dauka logelan. Inork molestatu gabe eta bere kasa egon nahi duenean, bertara sartzen da. Linterna batekin eta liburuekin, orduak eta orduak ematen ditu haren barruan. Baina egun batean mudantzako langileak etorri behar dira etxera, bere armairu kuttuna eramatera...




ELSA ETA PARADISUA (10-12 URTE)

Elsak bost urte zituenean entzun zuen lehen aldiz hitz hau: pa-ra-di-su. Gustatu egin zitzaion. Bost segundo baino ez zituen behar izan zer esan nahi zuen galdetzeko. Hala ere, inork ez zion erantzunik eman Uda batean, baina, dama bitxi bat agertu zen Elsa eta familia oporrak pasatzen ari ziren



DOMINISTRIPU JAUNA (6-8 URTE)

Doministripu jaunak doministiku egiten zuen bakoitzean, istripu bat gertatzen zen. Herriko kale estuetatik zebilela usin egiten bazuen, balkoietatik eskegita zeuden arropak lekuz aldatzen ziren. Hirugarren pisukoaren galtzontziloak bigarren pisura. Laugarrenaren praka bakeroak bosgarrenera. Bularretako gorri pare auzoko gizon zaharraren leihora. Eta galtzetinak! Galtzetin festa izugarria izaten zen, bakoitzak bere laguna aurkitu arte.



SUKALDEKO FRIKIAK (8-10 URTE)

Gure amak ez daki janaria prestatzen. Gauero nekatuta itzultzen da lanetik, eta betikoa afaltzen dugu: aurrez prestatutako janaria. Konponbide bakarra guk geuk lanari ekitea da. Ahaleginak merezi izan duela dirudi.



SUGAAR (10-12 URTE)

Gabonak iritsi dira, eta Eki gaixotu egin da, medikuek antzematen ez dioten gaixotasun arraro batekin. Haren arreba Izadik susmoa du Eki eta bere lagun Martxel jolasean ibili diren Lindozuloko putzuak izan dezakeela zerikusiren bat gaitzarekin. Bere kasa ikertzen hasten da, eta hainbat sekretu joango da deskubritzen aintzira misteriotsu horren inguruan.

bitxikeriak



Batezbeste erle langile batek koilarakada eta erdi ezti sortzen du bere bizitza osoan.



Satorrek, gau bakar batean, 90 metroko tunelak zulatzen dituzte.



Erromako Coliseok 50.000 ikuslerentzat lekua zuen. Gaur egungo futbol-zelairik modernoenen pare!



Hipopotamoaren esnea larrosa kolorekoa da.



Munduko lorarik handiena uztai erraldoia da (*Amorphophallus titanum*), eta haragi ustelaren usaina dauka.



Urtero egiten da denboraldian izango diren urakanei jarriko zaizkien izenen zerrenda. Alfabetoaren letra bakoitzeko izen bat aukeratzen da, eta mutil zein nesken izenak tartekatzen dira.



Esne-bideak 200.000 eta 400.000 milioi izar artean dituela kalkulatzen da.



Astronautak 7 cm hazten dira espazioan daudenean! Grabitaterik ez dagoenez, ornoak (bertebrak) erlaxatu eta luzatu egiten dira. Lurrera itzultzean ohiko altuera berreskuratzen dute.



Kontinenteak etengabe ari dira mugitzen. Adibidez, Ipar Amerika Europatik aldentzen ari da, 2 cm urtean.



Munduko biztanleen erdia Txinan, Indian, Estatu Batuetan, Brasilen, Pakistanen eta Indonesian bizi da.



Finlandian 187.000 laku inguru daude!



Puma da jauzirik altuenak egiten dituen animalia. 5 metroko altuerara irits daitezke.

TXAITOR


Euskal Herriko herri txiki batean, 3051. urtean, oso ume jakintsu bat jaio zen, Aitor izenekoa. 4 urte zituenean 6. mailan zegoen. Haren lagun bat baserri batean bizi zen eta txerri asko zituen. Aitorrek, lagunaren gurasoei, txerri bat eskatu zien, baina ezetz erantzun zioten. Aitor asko haserretu zen, baina oso azkarra zenez, bere laborategi sekretuan txerri bat diseinatzea pentsatu zuen.



Egindako lehen txerriari “Txerritxu” izena jarri zion. Asko gustatu zitzaionez beste txerri bat egitea erabaki zuen, “Kumi” izenekoa. Ondoren “Porki” eta “Pig” egin zituen. Aitorrek denbora asko pasatzen zuen txerriekin jolasten eta txerri-taldeari “Txaitor” izena jarri zion. Lagun minak ziren, baina egun batean, Aitor, oso polita zen neskatxa batez maitemindu zen. Denbora asko pasatzen zuen neska-lagunarekin, txerriekin baino gehiago, eta orduan, txerriak jeloskor jarri eta gaiztoak bihurtu ziren. Egund batean, Aitor etxera ailegatu zenean, ohar bat aurkitu zuen laborategian: “Kaixo Aitor. Txaitorrek gara. Ez diguzu kasurik egiten eta etxetik joan gara. Euskal Herriko banku guztietako dirua lapurtuko dugu. Agur.”

Aitor oso harrituta gelditu zen, ez baitzuen espero horrelako zerbait egiteko gai izango zirenik. Txaitorrek gelditzeko beste animalia indartsuago bat egitea pentsatu zuen. “Otsoa” egitea erabaki zuen, “Otsoitor” izenekoa. Txaitorrek, Otsoitorra ikustean, beldurtu egin ziren eta berriro onak izatea erabaki zuten. Aitorrek bere neska-lagunarekin moztu zuen, Txaitorrekin berriz ere arazorik ez izateko.

Eskatu aitari edo amari ipuin hau gaur gauean kontatzeko.
MEREZI DU...



- 1. marroia
- 2. gorria
- 3. laranja
- 4. arrosa

- 5. berde argia
- 6. horia
- 7. zuria